

~~~~~  
*Kontserbazio  
lanak,  
Cantarrana  
ikastetxean*

*/2. orrialdea*

~~~~~  
*Autonomia
kalea berrituta,
obrak amaitu
ondoren*

/3. orrialdea

~~~~~  
*Amaitu da  
Santelices  
zubiaren  
birgaitzea*

*/4. orrialdea*

~~~~~  
*Muskiztarrak,
beren
herriarekin
pozik*

/5. orrialdea

~~~~~  
*C.D.C. El Cerro  
kluba, kirolaren  
alde lanean*

*/6. orrialdea*

## Editoriala


### **Muskiz hobetzeko lanean dihardugu**

Muskiz hobetzeko lanean dihardugu, iritzi eta ideia guztiak errespetatuta. Muskizek hobekuntza merezi du, erreferentziazko udalerrria izatea merezi du; baina, horretarako, arriskuak hartu behar dira, erabakiak hartu behar dira, eta irtenbidea eman behar zaie arazoei, zaila bada ere dena delako irtenbideak denen gustukoak izatea. Jakina, ez dira erabakiak presaka hartu behar, eta argi izan behar dugu gure norabidea zein den; horrexegatik, partaidetza eta adostasun ahalik eta handiena biltzen ditugu, betiere, bereziki zainduz horrek proiektuak ez atzeratzea edo geldiaraztea (nekeza da denen premiei erantzutea, kontuan hartuta, batik bat, premia horietako zenbait elkarri kontrajarriak direla). Nolanahi ere, **erabakirik okerreana hartu gabeko erabakia da. Muskizen bizi garen guztion bizi kalitatea hobetzea dugu helburu, betiere, ZINTZOTASUNA, LANA ETA GARDENTASUNA oinarri harturik.**

**“Muskiztarrek herriaz duten iritzia hobetu egin da azken urteetan**

Sarritan, zalantzan jarri ohi da administrazioak gauzatutako jarduketak beharrezkoak ote diren; ez dugu hemen epaituko beharrezko jarduketak diren edo ez, herritar batzuek premiazko jotzen dutena ez dutelako hala ikusten beste batzuek. Egia da bizi gintezkeela sarbideak hobetu gabe, kiroldegia handitu gabe, enplegu planik gauzatu gabe, haurrentzako jolas gunerik sortu gabe, biderik konpondu gabe, liburutegirik edo gaztegunerik gabe edo tratu txarrak jasan dituzten emakumeei arreta emateko talderik gabe, besteak beste. Baina udalen eginbeharra da pertsonen bizi kalitatea hobetzea, baliabide ekonomikoak kolokan jarri gabe, eta horixe egiten ari gara gu: pertsonen bizi kalitatea hobetzen, zorpetu gabe, eta, are gehiago, datozen urteetan Muskizen hobekuntzak egiten jarraitzeko aurrezkoa sortuz.

**Borja Liaño Abarrategi**  
Muskizko alkatea



## **Udalak kontserbazio lanak egingo ditu Cantarrana ikastetxean**

**U**dako hilabeteetan, Cantarrana ikastetxe publikoko patioetako bat estaltzeko obrak egingo dira. Patioan estalki bat jarriko da, eta hezetasunak nahiz eguzkiaren zuzeneko intzidentziak kaltetutako eraikinaren zenbait eremu kontserbatzeko lanak egingo dira. Esku-hartze honen helburu nagusia da ikastetxearen instalazioak hobetzea eta kontserbazio lanak egitea, ikasturtearen martxa normalean eragozpenik sortu gabe, betiere.

Cantarranako ikasleek patio estali bat izango dute aurrerantzean, beraz, jolas orduan ez bustitzeko. Eskola zaharren eta Lehen Hezkuntzako eta BHIko eraikinaren arteko gunea estaltzeko, zulatu egin beharko da zorua, altzairu galvanizatuzko egitura

finkatzeko; egitura horren gainean olana iragazgaitz bat ezarriko da, 540 metro koadroko eremua estaltzeko, lurretik lau metro eta erdiko altueran, gutxi gorabehera.

Obra horiez gainera, eguzkitako bertikalak eta horizontalak jarriko dira eguzki izpiek zuzenean jotzen dien eraikinaren fatxadetan. Era berean, hezetasuna murrizteko jarduketak egingo dira, hala nola, teilatu hegalak jarriko ikastetxearen zabalgunee gisa eraikitako eremuan, hartxintarra aldatuko da eta estalkia iragazgaitzuko da, erretenak eta teilatu hodiak garbituko dira eta eraikinaren kanpo arotzeria berrituko da. Guztira, 200.000 eurotik gorako inbertsioa egingo du Muskizko Udalak, Cantarrana ikastetxearen eta Muskiz BHIren instalazioak hobetzeko.

## **LED argia, kaleak argiztatzeko**

Muskizek LED argiak izango ditu kaleko argiztapenerako, energia aurreztearen eta ingurumen eragingarritasunaren alde egindako apustuari jarraituz. Une honetan, Sobalbadun auzoko argiak aldatzen ari dira. Orotara, led motako 582 kale argi jarriko dira, eta, neurri horri esker, urtean 50.000 eurotik gora aurreztuko ditu Udalak. Argiak jartzeko inbertsioa 208.000 eurokoa izango da, baina udalaz gaindiko erakundeen diru-laguntzen bidez estaliko da zenbateko horren %68 inguru; gehienez ere bi urte beharko ditu udalbatzak gastu hori amortizatzen.





*Patioak, birgaitze lanen aurretik.*



## Amaitu dira Autonomia kaleko birgaitze integraleko obrak

**S**an Joan industrialdeko Autonomia kaleko bizilagunak lasai arnasa hartzeko moduan dira, ez baitute izango iazkoen moduko arazorik ur hornidurarekin. Izan ere, Udalak amaitu berri ditu auzoko hornidura eta saneamendu sareak berritzeko lanak. Auzoa 180 etxe inguruk osatua da, eta, berrikuntza lanei esker, beste itxura bat dute, gaur egun, hango patioek eta espaloiek; horrez gainera, aparka-

lekuak margotu dituzte, eta kaleko argiak ordezkatu (LED motako argi eraginkorragoak jarri dira), baita gas naturalaren hornidurarako kanalizazioak berritu ere. Esku-hartze integralak 725.000 euroko behin betiko zenbatekoa izan du.

Jarduketaren konplexutasuna zela-eta, urtebetetik gora iraun dute lanek. Alabaina, Autonomia kaleko bizilagunek auzo berria

dutela esan liteke orain, uraren eta gasaren kanalizazioak berrituta eta LED motako kaleko argiztapena jarrita. Auzo hori izan zen San Joan industrialdean eraikitzeko eremu izendatutako lehena, Eusko Jaurlaritzaren plangintzan, 1980ko hamarkadan, eta, harrezkero, eremu horretan hedadura handiko mantentze lanik egin ez denez, oso hondatuta zeuden kanalizazioak eta zorua.

## Muskiz, enplegua sortzen

Lanbidek eta Muskizko Udalak enplegua sortzen jarraitzen dute udalerrian, kontratazioak sustatzeko ekimenen bidez. Hain zuzen ere, ekainaren leian, 19 herritar txertatu zituzten lan merkatuan. Programa horretako parte-hartzaileei sei hilabeteko kontratua egiten zaie, azpiegitura publikoetan eta gune naturaletan mantentze lanak egiteko. Nolanahi ere, administrari bat eta lan orientaziorako bitarteko teknikari bat ere kontratatatu dituzte.



## Udalaren webgune berria

Udalak, Aldundiaren BiscayTIK programarekin bat eginik, [www.muskiz.org](http://www.muskiz.org) webgunea eguneratu du. Eguneratze horri esker, bizilagunek aukera izango dute, besteak beste, 102 izapide administratibo ohikoenak modu telematikoan egiteko. Berrikuntzarekin, bi helburu hauek beteko dira: alde batetik, herritarrekiko harremana sendotuko da, asteko 7 egunetan 24 orduz eskuragarri izango baitute beharrezko informazio guztia, eta, bestetik, herritarren eskariak izapidetzeko denbora murriztuko da.





## Basobideak berritzen, Pobeñan eta Carrascalen

Molinillotik Pobeñarako basobideak eta Piton bideak denbora libre mendu inguruan igarotzeko zaletasuna duten herritar asko eta asko erakartzen dituzte, bai oinezkoak bai txirrindulariak.

Joera hori kontuan hartuta, bi basobide horiek berritzeko, zabaltzeko eta garbitzeko lanei ekin die Muskizko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren Hobekuntza Funtzaren kargura.



## Kobarongo herrigunea berrurbanizatzea

Udalak Kobarongo plaza berrurbanizatzeke proiektua idazteko enkargua egin dio arkitektura estudio bati. Proiektu horrek barne hartuko du plazaren, haur parkearen, eliza inguruaren eta pilotalekuaren arteko hiri eremuaren hobekuntza, eta inguruko bizilagunen iradokizunak eta eskariak kontuan hartuko dira proiektua prestatzeko; hain zuzen ere, udal arduradunak bizilagunekin elkartu dira, iradokizunak eta eskari horiek jasotzeko.



## Santelicesko zubi metalikoa birgaitu da

Santelicesko zubiaren kolore berde bereizgarria distiratsu ageri da, berriro ere, zubia birgaitzeko lanak amaitu ondoren. Harea-zorrotada, pintura eta egitura konpontzea izan dira egitasmoaren ardatz nagusiak, eta metalezko piezen herdoila garbitzea eta konpontzea lortu da lan horiei esker. Era berean, altzairu herdoilgaitzezko xafra bozelduak jarri dira zoruan, denboraren poderioz zulaturako xafren ordez.

# Etxeetan lapurretak nola saihestu

## ETXEETAN LAPURRETAK NOLA SAIHESTU

- Eskura ditugun segurtasun-sistema guztiak jarri etxebizitzetan: ate blindatua, alarma, burdin hesiak, kutxa gotorrak...
- Atea ixteko, sarrailan buelta guztiak eman beti, kanpoan labur egongo bagara ere.
- Aberastasuna ez nabarmenkeriaz erakutsi; batez ere, ezezagunekin gaudenean.
- Ezezagunei ez utzi higiezinaren sartzan; etxebizitzan sartzan, are gutxiago. Beharrezkoa bada, behatxulotik begiratu ondoren, nor diren galdetu.
- Etxera itzultzean norbait barruan dagoela susmatuz gero edo kanpoaldean normala ez den jardueraren bat ikusiz gero, berehala deitu polizia.
- Ateetan edo sarrailetan objekturen bat ikusiz gero (esate baterako, zotzak, tolestutako paper-zatiak, behatxuloetan baselina ...), berehala jakinarazi polizia, eta horretaz gain, kontu handiz ibili, objektu horiek egoteak gure etxebizitza helburu dutela esan nahi baitu.
- Ezezagunen ezaugarri fisikoei erreparatu, asko lagunduko baitu gertatutako egintzak ikertzeko edo egin nahi diren beste batzuei aurrea hartzeko.
- Arreta handiz ibili behar da aldamioak dituzten eraikinetan: leihoak eta pertsianak ondo itxi eta kontrolatu, eta ez utzi agerian balio handiko objekturik.
- Delituren bat egin den susmorik izanez gero, ez ezer ukitu, eta deitu berehala polizia. Lekuko garenan ere, horrela jokatu behar dugu.

## LAPURRETAN ARI BAZAIKIZU EDO DAGOENeko LAPURTU BADIZUTE...

- Ez egin aurre lapurrei, eta saiatu lasai egoten.
- Beste norbaiten arreta erakartzeko aukera badaukazu, eskatu laguntza eta garrasi egin, baina, betiere, zure burua arriskuan jarri gabe.
- Hartu gogoan lapurraren ezaugarri fisiko guztiak, zer arma erabili duen, nola hitz egiten duen, orbanik badaukan... edo identifikatzan lagun dezakeen beste edozer xehetasun.
- Lehenbailehen jakinarazi polizia.





## Herritarrak gustura daude Muskizekin

**M**uskizko herritarrak pozik daude udalerriarekin, eta bizitzeko toki egokia dela irizten diote. Hain zuzen ere, herririari 10 puntutik 7,17 eman dizkiote Udal Zerbitzuen kalitateari buruzko lehen ebaluazioan parte hartu duten herritarrek. Emaitza positiboa da, noski, baina badago zer hobetu. Herritarren kezka nagusiak enplegua eta kutsadura dira, zehazki.

Udalerriri buruzko ebaluazioa positiboa da, zalantzarik gabe; baina, horrez gainera, nabarmentzekoa da Muskizko herritarren ustez udalerria urtez urte hobetzen ari dela. Horixe dio ebalua-

zioan parte hartu duten 547 lagunen (18 urtetik gorakoak denak) %56,7k.

Udalbatzak dokumentu bat izan nahi du esku artean; batetik, legealdi honetako udal jarduketaren programak diseinatzeko erreferentzia modura erabiltzeko, eta, bestetik, Udalak gauzatutako jarduketei buruz herritarrek duten hautesmenaren berri jasotzeko. Legealdi honetako obra eta proiektuei dagokienez, parte-hartzaileek ebaluazio positiboa egin dute kirolegia handitzeko lanez eta haurrentzako jolas eremuak sortzeaz eta berritzeaz. Bi alderdi horietan, 10 puntutik 7tik gorakoak izan dira emaitzak.



## Meatzari Aretoko zinema digitala izango du

Udalak digitalizatu egingo ditu Meatzari Aretoko proiektzioak, film estreinatu berriez gozatzeko eta asteburu batetik gorako epean eskaini ahal izateko ikusle asko biltzen dituzten filmak. Gainera, astean saio gehiago eskaintzeko aukera aztertzen ari dira, baita ikuslearen eguna ezartzeko aukera ere. Teknologia digitala ezartzeko, 54.000 euro inguruko inbertsioa egin behar da, eta irailerako izango dute dena prest, udako etenaren ondoren Meatzari Aretoko proiektzioei berririko ekiten zaionerako, hain zuzen ere.



## Udalbatzak harrera egin die saharar haurrei

Udalak Alkamar elkartearekin lankidetzan diruz laguntzen duen Oporrak Bakean programari esker, bi haur sahararrek aukera izango dute uda beraien errefuxiatu esparruko giroaz bestelako giro batean igarotzeko. Lehen aldia izango da haur horiek beren egunerokotasunetik kanpo daudena, eta egonaldi horretan zehar osasun azterketa egiteko eta behar duten osasun tratamendua jasotzeko aukera izango dute, harrera familien bidez. Argazkian, Saharako haurrak, udalbatzako kideekin eta harrera familiekin.



## Llosa de Vallesko harri-lubeta

Llosa de Vallesko auzo bideko lanak amaitu dituzte. Jarduketa horren xedea zen, hain zuzen ere, luiziak saihestea. Izan ere, bizilagun asko aritzen dira bide horretan joan-etorrian, oinez nahiz ibilgailu partikularretan, eta etengabe gertatu ohi ziren luiziak. Jarduketaren baitan egindako lanek bi asteko iraupena izan dute, eta 30.000 euroko inbertsioa eskatu dute. Lanek bi ardatz nagusi izan dituzte: harri-lubeta bat eraikitzea eta espaloi txiki bat atontzea, oinezkoen segurtasuna bermatzeko.

## Elkarrizketa

### C.D.C. El Cerro kluba: 30 urte kirol txikiak sustatzen

El Cerro de la Llosa kirol eta kultura elkarteak 2011. urtean eratu zen formalki. Orain 30 urte baino gehiago hasi zen lanean, ordea: izan ere, sorrera formalaren aurretik ere, herrian kirola eta kultura sustatzeko interesa zuten zenbait lagun hasita zeuden gizartean indar handia ez zuten kiroltako txapelketak antolatzen beraien denbora librean: tokiko txapelketak izan ziren hasieran, eta eskualdekoak, ondoren, tenisekoak, eskubaloikoak, emakumezkoen futbolekoak, etab. Horrekin batera, kultura asteak, hitzaldiak, topaketak eta abar ere antolatzen zituzten, eta goi mailako kirolariek parte hartu izan dute horietan, Alberto Berasateguik, esaterako.

**G/Zer lorpenekin zaudete harroen?**  
E/ Urte askotako aldarrikapenari eta lanari esker, gaur egun gune bat eskaintzeko modua



III. Mello Saria parte-hartzaileak.

“III. Mello Saria ikusgarriagoa eta atseginagoa izan dadin buru-belarri lanean

dugu edonork kirola egin dezan, zoruaren egoera kaskarraren ondorioz min hartzeko beldurrik gabe. Futbola, tenisa, saskibaloia, ping-ponga, xakea... egin ahal izango dira bertan, eta txikiak arriskurik gabe ongi patszeko aukera izango dute.

**G/ Une honetan, III. Mello Saria antolatzeko lanetan ari zarete. Irailean izango da, eta berrikuntza asko ekarriko ditu aurtengo ekitaldiak. Baduzue zerbait aurreraterik?**

E/ Irailaren 14an izango da III. Mello Saria. Muskizko 90etik gora bizilagun, saltoki eta enpresaren laguntzari esker, aukera izango dugu beste urte batez ekitaldi honetaz gozatzeko. Iazko saioan, 750 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten. Aurtengoari dagokionez, ibilbidea aldatu dugu, atseginagoa eta ikusgarriagoa izan dadin, baina

zailtasuna areagotu gabe. Txikiak zirkuitu berezi bat izango dute, 8 kilometrokoa, eta indarberritzeko anoa berezia izango dute amaieran, baita opari asko ere.

**G/Nola ikusten duzue zuenaren moduko elkarteen etorkizuna? Eragin handia du gaur eguneko krisiak zuen jardueran?**

E/ Muskizen, zorionez, elkarte asko eta asko daude, kirol arlokoak nahiz kultura arlokoak, eta denek jasotzen dute Kultura eta Kirol Sailaren laguntza; laguntza horiek urteko jarduerara egitarauaren arabera banatzen dira. Hala ere, talde bakoitzak beste ekimen osagarri batzuk antolatu behar izaten ditu, finantzaketa iturri gehigarri modura: zozketak, loteriak, txosnak... Horrek ez gaitu kikiltzen, ordea, eta Muskizen alde lanean jarraituko dugu, orain arteko ilusio berberaz.

## Igerilekuko zorua goratuko dute, jarduera gehiago egin ahal izateko

Muskizko Udalak goratu egingo du kiroldegiko igerilekuko zorua, energia aurrezteko, batetik, eta espazio horri malgutasuna emateko, bestetik; hain zuzen ere, berritze lanen ondoren, hidrobike eta mantentze gimnasia egin ahal izango dira igerilekuan, beste jarduerak batzuez gainera. Obretarako, 45.000 euroko inbertsioa egingo da, eta horri hezetasuna kentzeko bideratuko diren 120.000 euro gehitu behar zaizkio. Lanak abuztuan egingo dituzte, instalazioak erabiltzaileen zatitza daudela.

Igerilekuko uraren saneamendurako 6.000 litro ur inguru behar dira egunean, eta ur hori 27'5º-ko tenperaturara berotzeko energia ikaragarria behar da. Ur bolumena murriztuta, aurreztu egingo da uretan nahiz energian.



## Eskola baratzeetarako inbertsioa

Udalak ikastolako eskola baratzea hobetzeko neurriak hartuko ditu, eta Cantarrana ikastetxe publikoan ereiteko gune bat ezarriko du, Udalak berak lagatako lursail batean. Ekimen horri esker, txikiak aukera izango dute baratze lan nagusiak bertatik bertara ezagutzeko. Era berean, lagungarria izango da haurrak ohar daitezen gure jarduerak ingurumenearan duten eraginaz, baita bizikidetzaren eta autonomiaren balioak lantzeko ere, besteak beste. Guztira, 18.000 euroko inbertsioa egingo da, eta, inbertsio horri esker, bi ikastetxeek hiru alor izango dituzte beren baratzean, lanabesetarako etxolaz, negutegiak, fruituen guneak, konpostagailuak eta putzu txiki batez gainera. Atontze lanak irailerako amaitu nahi dituzte, ikasleak eskolan asten direnerako.